

Internet bidezko salmentaren aldeko apustua Araban

lazko urtea txarra izan bazen ere, Internet bidezko salmentaren alde egindako apustuak emaitza onak eman dizkie Arabako sagardotegiei eta aurten ere bide beretik jotzeko asmoa dute

J.S. | ARAMAIO

Euskal Herriko beste herrialdeetan bezala, Araban ere aurten sagar uzta txikiagoa izan da, baina, eskualde batetik bestera desberdintasun handiak daude, jaitziera ez da hain nabarmena izan. Azkenean 50.000 litro sagardo eta 15.000 litro zuku egitea lortu dute.

Araban hiru sagardotegi daukete une honetan: Iturrieta (Aramaiio), Kuartango (Añana) eta Trebiñu (Askartza), eta Juan Antonio Aretxaga da herrialdeko sagardogileen lehendakaria. Iturrieta sagardotegiko bazkide ere bada, Juanjo Peciñarekin batera, eta urteak daramatza sagastiak landatzen. Bere iritziz, herrialde honek baditu bere berezitasunak. «Biodibertsitate handiagoa dugu, eta, iparraldean sagar uzta asko jaitzi bada ere, lautadan ona izan da. Trebiñun, adibidez, oso sagar urte ona izan dugu kopuru aldetik».

Horrela, aurten hiru sagardotegien artean 50.000 litro sa-

BATERA ETA BESTERA

Juan Antonio Aretxaga, Arabako sagardogileen lehendakariak, zuzeneko salmentak lan gehiago ekarri diela onartu du. «Gehiago mugitu behar izan dugu batera eta bestera, bai etxeetara eramateko eta bai sagardoa denda berrietan izateko. Orain arte esan genezake baserriko lanak egiten genituela, baina orain, gero eta gehiago, komertzial lanak ere egin behar ditugu».



Juan Antonio Aretxaga, Aramalo Iturrieta sagardotegian. GARA

gardo eta 15.000 litro zuku egitea lortu dute. Orain falta duten gauza bakarra da sagardo hori guztia saltzeko aukera izatea. Izan ere, lehengo urteko balantzeari dagokionez, Juan Antonio Aretxagak dio urte txarra izan zela, txotx denboraldian ezin izan zutelako ireki eta udan egindako salmentak ez zirelako oso handiak izan.

Aurreko urtean baino sagardo gutxiago saldu zuten, baina Internet bidezko salmentaren alde egindako apustuak emaitza onak ekarri dizkiela onartu du Aretxagak. «Orain bi urte baino sagardo gehiago geratu zaigu saltzeko, baina ez gehiegi, Internet bidez asko saldu dugulako, bai sagardotegi bakoitzak duen web orrialdearen bitartez, bai Sagardoa Route webgunearen bitartez ere».

Edonola ere, zuzeneko salmentak lan gehiago ekarri diela onartu du. «Gehiago mugitu behar izan dugu batera eta bestera, bai etxeetara eramateko bai sagardoa denda berrietan izateko. Adibidez, Iturrieta sagardoa ekologikoa denez, produktu horiek saltzen dituzten dendak bilatu behar izan ditugu». Ildo horretan, honakoa gaineratu du Aretxagak: «Orain arte esan genezake baserriko lanak egiten genituela, baina orain, gero eta gehiago, komertzial lanak ere egin behar ditugu».

Eskaerak

Aurtengo denboraldiari dagokionez, Aretxagak eskatzen duen gauza bakarra da sagardotegiak zabaldu ahal izatea. «Ikusita egoera nola dagoen, nik eskatuko nuke sagardotegiak irekitzea eta ez itzea; hau da, zabalik jarraitzea denboraldian zehar, guretzako oso kaltegarria delako orain ireki eta hamabost egunera berriro itxi behar izatea».

Bien bitartean, Arabako sagardogileek laguntza gehiago eskatzen jarraitzen dute sagarrondoaren ekoizpena jarduerarako erakargarri eta errentagarria izan dadin nekazariarentzat. «Jatorri izendapenean, adibidez, Arabako zazpi bariedade sartzen dira, baina gaur egun horien ekoizpena testiniala da eta modu profesionalagoan ekoizten hasteko garaia dela uste dugu», diote.

Ildo horretan, sagarrondoak landatzeak Arabako nekazarien jarduerak dibertsifikatzen lagundezakeela azpimarratu dute sagardogileek. «Askok ez dira animatzen beste labore mota batzuetan aritzen direlako eta fruta-arbolak ekoizpena ohituta ez daudelako, baina lurak badaude, eta makinak ere bai. Falta den gauza bakarra erakunde bultzada da».

ITURRIETA SAGARDETEGIA

Bº Arraga, 2 / Aramaiio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 info@iturrieta.eus
 www.iturrieta.eus

EUROPEAN SAGARDOA

TREBIÑU sagardotegia

Askartza (Trebiñu)
 www.trebinu.com
 945 24 48 52 - 657 73 65 99

Kuartango SAGARDETEGIA

Zuhatsu-Kuartango 21
 ☎ 1.699 747 730 - 945 362 683

Arabako sagardotegiak

Servicio de autobús